



FUNTSEZKO BALIABIDEAK

1. Baliabide fisikoak

Proiektua aurrera eramateko beharrezkoak diren elementu ukigarriak:

- Denda fisikoa edo showroom pertsonalizaziorako egokitua: sarbide erraza, arrapala, espazio zabalak eta bezeroekin banakako arreta eta neurketak egiteko guneak.
- Makineria eta tresneria:
 - Josteko makinak (jantzi pertsonalizatuak egiteko funtzio bereziekin: puntuakera desberdinak, ehun lodiak...)
 - Ehunak neurritara eta zehaztasunez mozteko tresnak, pertsona bakoitzaren beharren arabera.
 - Prototipo pertsonalizatuak probatzeko maniki egokituak, gorputz mota eta desgaitasun ezberdinak kontuan hartuta.
- Generoa eta materialak:
 - Bezero bakoitzaren beharretara egokitutako ehunak: leunak, elastikoak, transpiragarriak.
 - Sistema pertsonalizagarriak: kremailera erraz erabiliak, botoi magnetikoak, belkro-sistemak eta beste osagarri funtzionalak.
- Biltegi txikia, batez ere materialak eta eskaera pertsonalizatueterako beharrezko osagaiak kudeatzeko.
- Webgunea eta online denda pertsonalizazio-aukerarekin (neurriak, behar bereziak, diseinu aukerak...).

2. Baliabide intelektualak

Proiektuaren balioa ematen duten ezagutza eta aktibo ukiezinak:

- Arropa egokitu eta pertsonalizatuaren diseinuari buruzko ezagutza espezializatua.
- Ikerketa eta garapen lana: bezero bakoitzarentzat egokitutako jantzi funtzional, eroso eta seguruen prototipoak sortzea.
- Marka-identitatea: logotipoa, estilo-liburua, marka-balioak (pertsonalizazioa, inklusioa, funtzionaltasuna eta estetika).
- Bezeroen behar indibidualei buruzko ezagutza sakona desgaitasun mota ezberdinetarako egokitzapen pertsonalizatuak kontuan hartuz.
- Harremanak eta sare profesionala:
 - Terapia okupazionala eta fisioterapiako profesionalak (jantziak pertsonalizatzeko aholku teknikoak emateko).
 - Desgaitasun elkarteak eta erabiltzaile-komunitateak.

- Tokiko hornitzaileak eta ehun-fabrikak, eskaera txiki eta pertsonalizatueta moldatzeko gai direnak.

3. Giza baliabideak

Proiektua martxan jartzen eta mantentzen lagunduko duten pertsonak:

- Diseinatzaileak: arropa egokitu eta pertsonalizatuan espezializatuak edo trebakuntza espezifikoak dutenak.
- Jostunak eta produkzio-langileak: eskaera bakoitza neurrira egiteko gai diren profesionalak, serie handirik gabe.
- Komunikazio eta marketin taldea: pertsonalizazioaren balioa komunikatzeko arduradunak (webgunea, sare sozialak, kanpainak, marka zabalkuntza).
- Bezero-arreta: bezero bakoitzaren behar zehatzak ulertu eta jarraipen pertsonalizatua eskaintzeko gai diren pertsonak.
- Aholkulari profesionalak:
 - Osasun arloko adituak (ergonomia eta funtzionalitatea hobetzeko).
 - Diseinu unibertsaleko adituak.